

Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAK GABONETAKO ARGIAK INSTALATZEKO PROZESUA HASI DU

Dagoeneko hasi dira eraikinetan, fatxadetan eta bide publikoko elementuetan euskarriak, ainguraketak eta hainbat elementu jartzen, aurtengo Gabonetako argiztapena instalatzeko.

Marisol Garmendia Ekonomia eta Enplegu zinegotziak adierazi duenez, "Gabonetako kanpaina prestatzen hasi gara, eta aurten ere energia-eraginkortasunaren, jasangarritasunaren eta elkartasunaren parametroekin jarraituko dugu, betiere erakargarritasunik galdu gabe. Gabonak Donostiak Gabonetako Europako Hiriburu titulua jaso zuen iazko bideari jarraituko dio".

Lehenengo fasea, lokailuei eta kableatuei dagokiena, irailaren 6an hasi zen, eta urriaren lehen astean amaitzea aurreikusten da. Orduetik aurrera, muntaiaren bigarren fasea hasiko da, Donostia osoan motibo eta apaingarri desberdinak jarritz. Lan hori azaroaren bigarren hamabostaldira arte luzatuko da, eta dena prest utziko da Gabonetako argiak pizteko, aurten abenduaren 1ean, ostirala. "